

Hesi berri

Bestela nahikoa arazo ez, eta euskararen hedapenari beste traba bat jartzera datoz. Oraingoan erruduna ez da Madril izango, Gasteiz baino: Heziberri dekretua onartuta, atzera egingo du euskararen irakaskuntzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE): etorkizun hurbilean, euskara gutxiagiko ikasleak orain baino gehiago izango dira.

Ereduak gainditu behar direlako aitzakiarekin, ereduok lausotzera doaz: urte batzuk barru ez da A, B edo D ereduak ikastetxerik egongo, guztiak izango baitira 3L: ingurumaria horretan, gurasoek ezingo dute jakin zein ikastetxetan ikasiko den nahikoa euskara, guztiak aginduko baitigute euren euskara, gaztelania eta ingelesa, hirurak ederto ikasiko dituztela gure umeei.

Horrela, aurrerantzean euskara ingelesarekin lehiatuko da, eta lehia horretan galtzaile aterako. Jaurlaritzak ez du diseinatu 2-16rako (ume gehienek adin-tarte horretan eskolaraturik daude) eredu eleanitza, hizkuntza ofizial biak segurtatuta gero ingelesa indartuko duena. Ez: tranpa egingo du. Ikastetxeen autonomiaren izenean, eskola bakoitzak nahasiko ditu, ikasturtez ikasturte, hiru hizkuntzak nahieran, euskarari B eredu bakoitza baino ordu gu-



Mikel Basabe
IRAKASLEA

Nafarroako iazko lege-aldaketa "txikiarekin" ez bezala, Kontseilurik ez dago. Eta legebiltzarkide ustez euskaltzaleak, jeltzale zein bilduak, mutu

txiagi eskainiz. Horren ondorio zuzena izango da Euskadiko ikasle gutxiagok jakingo duela euskaraz "nahikotasunez"; alegia, legeak agintzen duena. Eta Jaurlaritzak, A ereduarekin egiten duen legez, ezikusiarrena egingo du. Urteek erakusten digutenean 3L ereduak ez duela balio euskaraz jakiteko, belaunaldi bat galdua izango dugu eta,

eskarmentuak hala diosku behintzat, Jaurlaritzak ez du ezer egingo. Esandakoa: euskara gutxiagiko ikasle gehiago.

Izan ere, Jaurlaritzaren koldarkeria hain da handia, ezen ez baitu zehaztu ikasleek zenbat euskara eta zenbat ingeles jakin behar duten derrigorrezko eskola-aldia amaitzean: A2? B1? B2? Hori bai: Heziberri zonifikazioa ezarriko du, ikasleen "irteera-perfila" ingurune soziolinguistikoaren arabera aldatuz. Euskararentzat, noski, ez baitut uste ingelesaren ezagutza ingurune soziolinguistikoarekin lotuko dutenik.

Hizkuntzen trilerioak, 3zurtiak, euskara normal ez izatea behar duten alderdi eta hedabideak, zerbaiten premian zeuden euskararen irakaskuntzaren gorakada geratzeko: A eredu ia guztiz desagertuta (hori bai, eskola publikoan ghetto bihurtuta, administrazioak hori saihesteko ezer egiten ez duela), hirugarren kubilotea behar zuten EAEko gazteak, etorkizuneko helduak, elebidunak izan ez daitezten. Esku-eskura ipini die Jaurlaritzak.

Bien bitartean, Nafarroako iazko lege-aldaketa "txikiarekin" ez bezala, Kontseilurik ez dago. Eta legebiltzarkide ustez euskaltzaleak, jeltzale zein bilduak, mutu. Kontzertatuak daudelako Heziberriren alde. ■

Europa bat-batean

KANTU INPROBISATUAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA

APIRILAREN 16TIK 23RA GIROTZE SAIOAK EUSKAL HERRI OSOAN ZEHAR

16 Bilbo / 17 Hernani / 19 Donostia / 20 Iruña
21 Markina-Xemein / 22 Uztaritze / 23 Aramaio



www.europabatbatean.eus